




EUOPAR KOMUNITATEEN BATZORDEA  
ESPAINIAKO ORDEZKARITZA



# Euskal Herria eta Europar Elkargoa

## **EUOPAR KOMUNITATEEN BATZORDEA**

Espainiako Ordezkaritza:

Serrano, 41 - 5.<sup>a</sup> solairua

E - 28001 MADRIL

Telefonoa: (91) 435 17 00

Faxa: (91) 576 03 87 y 577 29 23

Dokumentu hauetako informazioak Europar Batzordearen Zuzendaritza Nagusiek eta Zerbitzuek eskuratutako materialak erabiliz prestatu dira.

Ekonomi eta Haziendako Ministraritzaren Plangintzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza ere izan da, baita Autonomi Elkarleen Zerbitzu desberdinek hornituriko materiala ere.

Idazten D. José Antonio Nieto Solís eta D. Alfonso Utrilla de la Hoz, Madrileko Unibertsitate Konplutenseko irakasle titularrek esku hartu dute.

Eskerrak ematen dizkiogu Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Idazkaritzari (Publizitate Zerbitzuari), Turismoko Idazkaritza Nagusiari, interesgabeki eskuratu baitigu dokumentu hauetan argitaratzen den argazki-materialaren parte bat, eta baita EFE Agentziari ere.

1994an amaituriko eskuizkribua.

Itzulpena: Comunicación Multilingüe


Itzultzailea: Xabier Mendiguren      Impresión: Benzal, S. A.

Lege-gordailua: M. 13.537.—1994

Birproduktzio baimendua, helburu komertzialetarako izan ezik, iturria aipatzea beharrezkoa delarik.

Argazkiak: Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Idazkaritza (Publizitate Zerbitzua), Turismoko Idazkaritza Nagusia eta EFE Agentzia (Debekaturik birsotzea).

# A U R K I B I D E A



- 2** Hitzaurrea
  
- 4** Oinarrizko datuak
  
- 5** Euskal Herria:  
Ezaugarri sozioekonomikoak
  
- 12** Europar elkargoa eta bere erregioak
  
- 24** Euskal herriaren aldeko Europar  
Elkargoaren egintzak
  
- 31** Helbide baliagarriak
  
- 37** Oinarrizko bibliografia
  
- 38** Siglak



# H I T Z A U R R E A

1

994 ez da izango Europar Elkargoaren Historian beste edozein urte bezalakoa.

**H**orretatik Europar Palamentu berria sortuko da, Elkargoko Hitzarmenak ematen dion boterez hornitua: hiritarrek hautaturiko

Parlamentua Europa eraikitzearen erronka bikoitzari aurre egin beharko diona bere barne- eta kanpo-proiektzio bikoitzean, bai hiritarraren eguneroko arazo etatik hurbilen dauden alderdietan, bai Elkargoaren irudi amankomuna sendotzera zuzendurik dauden eta batzuetan zailak diren erabakietan.

**E**uropar Komunitateen batzordeak agerian jarri nahi izan du integrazioaren alderdirik konplexuenetako bat: erregioak instituzioetan sartzea Europa berriaren eremu amankomunean. Hemendik aurrera irekitzen den aldiaren ezaugarria tresna berriak ihardunbidean jartzea da, nola instituzionalak hala finantzarioak, erregioen garapenari laguntzeko.

**B**adirudi bidezkoa dela Europar Parlamenturako hauteskondeekin batera argitalpen hau plazaratzea, izan ere erregio-egintzak politika komunitarioetan duen garrantzia azpimarratzeko burutua baita.

**E**uropar Elkargoaren Hitzarmenak, Estatu kide guztiek berretsia izan ondoren, nabarmenki errebortxatzen du Parlamentu berriaren partaidetza erabakiak hartzearen prozesu komunitarioan eta halaber, etorkizuneko egintza komunitarioak zehazten lagunduko duen Erregioen Komitea sortzen du.

**E**spainiar erregioek, beren aniztasunean, plataforma egokia eskaintzen dute erregio-ekonomien arteko diferentziak murrizteko diseinatu diren mekanismoak hoberendu eta errebortxatzeko.

**Z**entzu horretan, espainiar Estatuko Administrazio desberdinak ahalegin erabakiorra burutzen ari dira beren hiritarren bizi-maila hobetzeko eta, azken

urteetan, Europar Elkargoa ihardun-lerro hori indartzen aritu da egitura-fondoan eta beste ekimen amankomunen bitartez, berorien irismen eta edukia berehalako etorkizunean errebortxatu beharrekoa delarik.

**Aurkezten** dizuegun argitalpen-sail honetan biltzen dira Autonomi Elkartearen ezaugarri sozioekonomiko nagusienak, baita Europar Elkargoak Espainiako lurraldearen gizarte- eta ekonomi garapenean tarteko diren toki, erregio eta nazioko instantziekin batera burutu dituen egintza gehienak ere.

**Espainiak** bilakaera nabarmena izan du Komunitateari atxiki zaionetik. Gaur ezinbestekoa du bere osakide guztiek: instituzio, enpresa, hiritar eta abarrek integrazioak ikuspegi ekonomiko eta instituzional bikoitzetik eskaintzen dituen tresna eta abantail guztiak erabiltzen jakitea.


**Testuinguru** horretan Espainiako erregioen garapena Europar Elkargoaren garapenaren osakide da.

Madriken, 1994ko martxoaren 21



**Gonzalo Velasco**

Europar Batzordearen  
Ordezkaritza-Zuzendaria Espainian



# O I N A R R I Z K O D A T U A K

Urtea 1990	EUR12	Espainia	Euskal			
			Herria	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Azalera %	100	22,4	0,3	0,1	0,1	0,1
Biztanleria %	100	11,3	0,6	0,1	0,2	0,3
BPGep* %	100	9,0	0,6	—	—	—
Demografi Dentsitatea (Bitkanleak Km <sup>2</sup> )	152,8	77,2	293,2	2,7	349,0	538,2
Jaiokortasun-Tasa (%) (1989)	11,8	10,4	8,1	—	—	—
Hilkortasun-Tasa (%) (1989)	10,0	8,4	7,3	—	—	—

\* Barne-Produktu Gordina erosmen-parekotasunetan.

ITURRIA: EUROSTAT. Estadísticas Básicas (1993) eta Portrait des Régions (1993).

Urtea 1990	EUR12	Espainia	Euskal			
			Herria	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Enpleguaren % nekazaritzan enplegu guztiarekiko	7	12	4	6	3	4
Enpleguaren % industrian enplegu guztiarekiko	33	33	42	48	43	38
Enpleguaren % zerbitzuetan enplegu guztiarekiko	60	55	54	46	54	58

ITURRIA: EUROSTAT. Estadísticas Básicas (1993) eta Portrait des Régions (1993).

Urtea 1990*	EUR12	Espainia	Euskal			
			Herria	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Langabezi Tasa**	9,4	17,8	19,0	18,6	19,6	18,7
Langabezi Tasa Giz	8,0	13,6	12,1	—	—	—
Langabezi Tasa Ema	11,5	25,5	30,8	—	—	—
Langabezi Tasa < 25 U.	18,1	32,3	41,9	—	—	—

\* Probintzietako datuak 1990 ekoak dira.

\*\* Biztanleria aktiboaren urteko batezbestekoa portzentaian.

ITURRIA: EUROSTAT. Estadísticas Básicas (1993) eta Portrait des Régions (1993).

# EUSKAL HERRIA: EZAUGARRI SOZIOEKONOMIKOAK



**E**uskal Herria da espainiar erregioen artean hizkuntz eta kultur tradizio nabarienetako bat, baita aldi berean historiazko erro sakonenak dituena, nola industrializazio-prozesuan, hala gizarte- eta finantza-ehun propioaren taxuketan ere.

**B**ere biztanleria, bi milioi biztanle baino zertxobait gehiago dituena, Europar Elkargo osoaren % 0,6 da eta bere azalera % 0,3. Autonomi Elkarteak, autonomia nabarmenarekin herrialde historiko bezala hiru probintziak osatua, 7.300 km<sup>2</sup>-ren jabe da. Nahiz eta lurralde horren % 60 basoz estalirik egon,

*Euskal Herriko demografi dentsitateak Europar Elkargoan batez beste erregistraturikoa bikoiztu egiten du. Biztanleriaren % 40a Bilbo Handian dago bildurik.*

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

*Euskal Herriak  
espainiar BPGaren  
% 5'8aren ekarpena  
egiten du.  
Bere ihardueraren  
heren bat  
industri sektorean  
biltzen da.*

hirigune handiak ere baditu. Bilbo Handiak, adibidez, biztanleriaren % 40a baino gehiago hartzen du eta hazkuntza-aldi handiak ezagutu ditu beste espainiar erregioetatiko etorkinak iristearen ondorioz. Kontzentrazio horrek biztanleri dentsitate oso desberdina eragiten du.

**B**atekoz beste, Euskal Herriak duen biztanleriak ia bikoiztu egiten du Europar Elkargokoa. Bizkaiko probintziaren kasuan bertan, espainiar batezbestekoa baino zazpi aldiz handiagoa da. Guztiarekin ere, bere jaikortasun-tasa batezbeste nazionalaren azpitik dago, nahiz eta bere hilkortasun-tasa ere horrela egon. Adierazgailu horien arabera, azken hamar urteotako biztanleriaren hazkuntza negatiboa da, eta Arabako probintziak bakarrik gehitu ditu bere biztanleak denboraldi horretan. Biztanleri egiturak pertsona nagusien proportzio handiago bat erakusten du, Bizkaiko probintzian batipat; izan ere, 15 urtez azpiko biztanleen portzentaia batezbesteko nazionala baino ia hiru puntu txikiagoa da, nahiz eta horrelakoa den ere, neurri txikiagoan, 64 urtetik gorakoen biztanleria.

**E**zaugarri demografiko horiek (biztanleriaren banaketa eta kontzentrazioa, Europako handienen artean dagoen dentsitate batekin) eragin garrantzitsua izan dute Euskal Herrian aberastasuna sortzearen prozesu historikoan. Hala eta guztiz ere, gaur egun erregio-garapenaren arazorik berezietakoak dira, zeren eta orain arte nagusi izan zen garapen ekonomikoko ereduaren desoreka espazial, industrial, sozial eta ingurugiroko nagusien ondorioak dimentsio txikiko geografigunetan biltzen baitira.

**G**ainera, azken urteotan, Euskal Herriak bere errenta- eta enplegu-mailen murrizketa bat izan du Europaren gainerakoaren aldean, ekonomi krisiak izan duen inpaktu bortitzaren ondorio gisa batipat, baina baita arazo sozio-ekonomikoen iraupenaren ondorioz ere.

**H**onekin batera doazen tauletan ageri diren adierazgailuetatik nabari daitekeenez, Euskal Herriak, oro har, ekonomi iharduera oso garrantzitsua du. Espainiar biztanleria osoaren % 5,4koa den



**Photographs removed due  
to copyright restrictions.**

biztaliarekin, Barne Produktu Gordinaren % 5,8 ekartzen du, Bizkaiko probintzian biltzen delarik sortutako aberastasunaren ia % 53a. Ekoizpen-ihardueraren sektore-egiturak industriaren garrantzi oso esanguratsua ageri du (% 33,6), batezbesteko nazionala baino 11 puntu gehiagokoa. Zerbitzu-sektorearen pisua (% 58,7) espainiar batezbestekoa baino nahikoa txikiagoa da (% 65), nekazaritzan eta eraikuntzan gertatzen denez.

Urtea 1992	Espainia	Euskal Herria	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
<b>BPG %TAN</b>	100	5,84	0,92	1,91	3,07
<b>Nekazaritzaren partaidetza BPG-EAN</b>	4,1	1,7	2,59	2,16	1,37
<b>Industriaren partaidetza BPG-EAN</b>	22,8	33,6	37,94	36,49	35,0
<b>Eraikuntzaren partaidetza BPG-EAN</b>	8,1	6,0	5,51	5,53	6,22
<b>Zerbitzuen partaidetza BPG-EAN</b>	65,0	58,7	53,96	55,82	57,41

\* Datu probintzialak 1991 ri buruzkoak dira.  
ITURRIA: Banco Bilbao Vizcaya eta FIES Fundazioa

Euskal Herriaren garapen erlatiboa, bere Barne Produktu Gordinari bitartez erosmen-parekotasunetan neurtuz gero, Europar Elkargoko mailaren % 82,7an kokatzen da, hau da, espainiar batezbestekoaren 6,2 puntu gainerik. Ekonomi krisiak erregioan izan duen inpaktuak eta hazkuntza handieneko aldi iraun duen desindustrializazioak eragin dute europar batezbestekoarekiko bere ekonomi konbergentzia espainiar multzoak izan duena bezain nabarmena ez izatea 1985az geroztik. Horrela, beti erreferentziatzat per capita BPG erosmen-parekotasunetan harturik, Europar Elkargoarekiko aldea 2,7tan murriztu du 1985az geroztik, ekonomia espainiarrak, oro har, 6,1ean egin duen bitartean.

*Per capita BPGa Europar Elkargoaren batezbestekoaren % 82,7an kokatzen da, nahiz eta garapen erlatiboaren maila, batezkoz beste, gainerako espainiar erregioetan erregistratua baino altuagoa izan.*

Urtea 1992	EUR12	Espainia	Euskal Herria
<b>BPG Biztanleko</b>	100	76,50	82,70
<b>Konbergentzia Erlatiboa Biztanleko BPG-EAN 1985 etik</b>	0	+ 6,10	+ 2,7
<b>Famili errenta euskuragarria biztanleko</b>	100	77,30	74,39
<b>Lurralde-Administrazioen gastua BPG-AREN gainean</b>	—	15,70	29,52

\* Erosmen-parekotasunetan.  
ITURRIA: Banco Bilbao Vizcaya eta FIES Fundazioa eta Administrazio Publikoetarako Ministraritza.

Hala eta guztiz ere, biztanleko BPGak batezbesteko nazionala baino handiagoa da oraindik ere eta ekonomi hazkuntza erregionalaz oraindik orain egindako estimazioek euskal ekonomiaren portaera aldeko eta neurritzkoagoa ageri du espainiar erregio gehienen aldean.

Lan-merkatuaren adierazgailuek europar ekonomia bere osotasunean hartuta baino egoera desegokiagoan kokatzen dute Elkartea eta gogoratzen dute badituela zenbait arazo sozioekonomiko berezi

metropoligune handiei eta industri krisiak erasanikako guneei dagozkienak. Iharduera-tasa eta okupazio-mailak espainiar batezbestekoak baino zertxobait handiagoak dira eta desenplegua neurtzen duten adierazgailuek batezbesteko nazionalaren gainetik jartzen dute, bai adierazgailu orokorretan, bai sexu edo adinezko langabezi tasatan.

Adierazgailu-multzo horrek agerian jartzen ditu Euskal Herriaren ezaugarri sozial eta ekonomikoetako batzuk. Bere hobekuntza etengabearen eragimen desberdinez dihardute administrazio publiko diferentek. Ekonomi ihardueraren alde erdiko administrazioak egiten duenaz gainera, lurralde-administrazioek gero eta pisu handiagoa izateko era berean zeregin nabarmenagoa ematen diote erregio eta tokiko gobernu-mailei funtsezko ondasun eta zerbitzuak hornitzerakoan.

*Bere gizarte eta ekoizpen-ehunaren aberastasuna, geografi kokaera eta autogobernu-sistema aldeko elementuak ditu Euskal Herriak europar ekonomian sartzeko.*

Urtea 1992	Espainia	Euskal Herria	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
<b>Biztanleria % tan</b>	100	5,41	0,70	1,74	2,97
<b>&lt; 15 urteko biztanleria guztiarekiko</b>	19,40	16,66	18,12	16,90	16,18
<b>&gt; 64 urteko biztanleria guztiarekiko</b>	13,75	12,72	10,73	12,59	13,26
<b>Biztanleriaren bariazioa 1981 eta 1991 bitartean</b>	3,16	- 1,22	6,10	- 2,41	- 2,13

ITURRIA: INE, 1991 ko Biztanleri Zentsua.

Urtea 1991*	Espainia	Euskal Herria	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
<b>Jarduera-tasa</b>	49,3	50,4	52,9	49,6	49,9
<b>Okupazio-tasa</b>	37,9	38,3	43,2	40,3	39,5
<b>Langabezi-tasa</b>	23,90	24,85	18,3	18,7	20,8

\* Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (aktiboak, okupatuak eta langabetuak) probintziak 1992ri dagozkio.

OHARRA. Aktibitate-tasa eta okupazio-tasa 1993ko 3º Urtelaurrenari dagokio. Langabezi tasa 1993ko 4º Urtelaurrenari dagokio. Lehenak biztanleria aktiboaren proportzioa islatzen du 16 urte baino gehiagoko biztanleriarekiko. Okupazio-tasak lan egiten duten pertsonen proportzioa islatzen du 16 urte baino gehiagoko biztanleriarekiko. Langabezi tasak pertsona langabetuen proportzioa neurtzen du biztanleria aktiboarekiko.

ITURRIA: INE, Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta Lan eta Gizarte-Segurantzako Ministeraritza.

Horrela, Euskal Herria oinarritzen deneko Ekonomi Kontzertu-sistemak garrantzi nabarmeneko elementu bat ematen du lurralde-administrazio desberdinentzat.

Nahiz eta, lehenago adierazienez, Euskal Herria europar ekonomia erasaten ari den industri krisiaren adibide argia izan bere gizarte- eta ekoizpen-ehunaren aberastasunak, geografi kokaguneak eskaintzen

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

dizkion abantaila handiekin batera, europar barne-merkatuan egoki sartzeko itxaropen handiak dituen erregio bihurtzen dute.

**H**orixe da toki-, erregio- eta nazio-mailan, Europar Elkargoaren laguntzarekin sarri askotan ezarritako garapen-egitarauen oinarritzko helburua.

**E**uropak eginbide bat baino gehiago ditu bere erregioen garapena bultzatzeko bereziki pentsatuak. Esparru horretan, Euskal Herriak dituen arazo bereizgarrienetako batzuk irismen desberdinetako neurriez tratatu beharrekoak dira (oinegiturak eta gizarte-hornikuntzak, ingurugiroaren babesa, enpresentzako laguntza eta berorien modernokuntza hobetuz), lehiakortasun-egoera on batean etorkizunari erronka egiteko aukera emango dutenez. Helburu hori errazteko, euskal ekonomiari irekitzen zaizkion alternatibak bere gizarte eta lurraldearen ardazte koherente batean bermatu behar dira sartzan direneko europar testuinguruan.

**H**orretan lagundu behar dio industrian eta euskal hirietan burutzen ari den modernizazioak, eta baita Osasun eta Laneko Segurtasunerako Agentziaren egoitza Bilbon ezartzeak gainerako europar erregioekiko ahalbidetuko dituen lotura handiagoak ere.

*Tokiko eta erregioko agintariak, Erdiko Administrazioaren eta Europar Elkargoko erakundeen laguntzarekin zeregin garrantzizkoa burutu behar dute Euskal Herriaren ekonomi garapena eta bizi-mailaren hobekuntzaren alde.*

*Europar eraikuntza  
aberasturik geldituko  
da baldin eta erregio-  
berezitasunak  
kontutanago  
edukitzea eta dauden  
barne-diferentziak  
murriztea lortzen bada  
aldi berean.*

**E**uropar Elkargoa osatzen duten erregioen artean dagoen aniztasuna eragozpen eta europar integrazioaren aberastasun-faktore dira aldi berean. Erregioek biztanleei beren identitatearen zentzu sakona ematen diete, eta hori ikuspegi politiko eta sozialetik faktore erabakiortzat jo behar da Europa eraikitzearean prozesuan. Baina erregioek era nabarian azaltzen dituzte Europan dauden desberdintasun sozioekonomikoak ere. Horrela, Elkargoko hamar erregio oparoenak Groningen (Herrialde Beheretan) eta Hamburg (Alemanian) buru direla, hiru aldiz aberatsagoak dira eta hiru aldiz gehiago inbertitzen dute beren oinarrizko ekonomian Grezia eta Portugalako hamar erregio pobreenek baino.

**Photographs removed due  
to copyright restrictions.**

**E**uropar Elkargoak hitza eman du desberdintasun horiek murrizten lagunduko duela egintza bereziak abiaraziz eta, batez ere, Estatu kide eta erregio-agintariek berek hasitako iharduerari lagunduz, subsidiarioratasun-printzipioaren arabera. Alde batetik, merkatu handia eta elkartasun ekonomiko eta monetazkoa eraikitzeari ekin beharra dago inor bazterrean utzi gabe eta, bestetik, europar guneko arazoak ikuspegi solidario batetik bideratu beharra.

**P**lanteamendu horren ondorioz, Elkargoaren Hitzarmenak jadanik Europan egiten ari ziren ekimen batzuk errebortxatu egin ditu. Bereziki, berretsi egin du erregio-desberdintasunak murrizteak Europaren eraikuntzan duen garrantzia eta helburu horren eskura jarri ditu eginbide berriak izaera erakunde-zko eta, jakina, finantzazkoarekin.

*Europar Elkargoaren Hitzarmenak izaera erakunde-zko eta finantzarioko egintzabide berriak jarri ditu erregio-izaerako helburuen eskura.*

**E**uropar Elkargoan dagoen aniztasuna instituzionalki aitortzeak, Erregioen Batzordea sortu eta abiaraziz urrats handia da erregio-fisionomia europarra garatzeko. Halaber, estimulu-faktorea da maila jurisdikzioanitz desberdinen arteko lankidetzeta sendotzeko.

**E**rregioen zeregina Europar Elkargoan politikoki eta instituzionalki sendotze horrek parez pareko garapena izan du sektore-ikuspegitik, eta batez ere, erregiokotik dauden desoreka ekonomiko eta sozialak zuzentzera eramango duten neurrien ezarpenean.

**E**dinburgheko Europar Kontseiluak, 1992ko abenduan, 1993-1994 aldirako finantza-ikuspegiak onartu zituen, egitura-egintzen

FINANTZA-SALDOAREN BILAKAERA ESPAINIA-EUROPAR ELKARGOAN  
(milioika pezetatan).

	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994*
<b>Ekarpenak guzt.</b>	110.886	137.364	236.220	296.626	383.741	557.096	659.080	792.557	937.934
<b>Gastuak guzt.</b>	102.481	176.264	398.218	483.993	510.125	953.030	990.496	1.144.026	1.307.168
<b>Saldoa</b>	-8.405	38.900	161.998	187.367	126.384	395.934	331.416	351.469	369.234

\* Estimazioa.

ITURRIA. Aurrekontuen Zuzendaritza, Ekonomia eta Hazienda-Ministraritza.

AURREKONTU-SALDOAK ESTATU KIDEEN ARABERA  
(1987-1991 batezbestekoa milioika ecutan)

<b>Belgika</b>	-638,8
<b>Danimarka</b>	314,6
<b>Alemania</b>	-6.365,5
<b>Grezia</b>	2.084,6
<b>Espainia</b>	1.398,4
<b>Frantzia</b>	-1.913,4
<b>Irlanda</b>	1.570,1
<b>Italia</b>	-609,1
<b>Luxemburg</b>	-82,6
<b>Herrialde Behereak</b>	526,8
<b>Portugal</b>	735,4
<b>Erresuma Batua</b>	-2.416,7

ITURRIA. Kontu-Epaitegia

*Europar Elkargoaren aurrekontuak ekonomi eta gizarte-koheiorako bere baliabideen heren bat baino gehiago erabili nahi du (30.000 milioi ecu 1999an).*

errebortxapena bereziki azpimarratuz. Zentzu horretan, gizarte- eta ekonomi kohesioa sendotzea erabaki zen, bere finantzamendurako baliabideak gehituz harik eta 1999an 30.000 milioi ecu lortzeraino, hau da, Europar Elkargoko aurrekontu osotik % 35,7. Egintza-multzo hori oparotasun gutxiagoko Estatu kideen, erregio ultraperiferikoen eta Elkargoko gune ruralen baitara zuzenduko da nagusiki.

**Photographs removed due to copyright restrictions.**



ECUAREN PONDERAZIO ETA BALIOA

Herraldea-Moneta	Ponderazioa ecuan (% tan)	Erdiko balioa ecuarekiko
<b>Belgika (B. Frankoa)</b>	8,21	40,2123
<b>Danimarka (Korona)</b>	2,66	7,43679
<b>Alemania (Markoa)</b>	32,02	1,94964
<b>Grezia (Drakma)</b>	0,54	264,513
<b>Espainia (Pezeta)</b>	<b>4,46</b>	<b>154,250</b>
<b>Frantzia (F. Frankoa)</b>	20,37	6,53883
<b>Irlanda (I. Libra)</b>	1,06	0,808628
<b>Italia (Lira)</b>	8,47	1.793,19
<b>Luxemburg (L. Frankoa)</b>	0,32	40,2123
<b>Herralde Behereak (Florina)</b>	10,01	2,19672
<b>Portugal (Eskudoa)</b>	0,72	192,854
<b>Erresuma Batua (Libra S.)</b>	11,16	0,786749

\* Moneta bakoitzaren gaurko balioa eta ponderazioa 93/05/14an finkatu ziren.

ITURRIA: EUROSTAT.

Gaur egun, Europar Elkargoak Egitura-Fondoetako multzo bat dauka (Erregio-Garapenerako Europar Fundoa, FEOGA Orientabidea, Europar Gizarte-Fundoa eta Arrantzaren Orientabiderako Finantza-Bitartekoa), baita beste egintza berezi batzuk ere ikerketa, irakaskuntza, garraioa eta komunikabideak edo ingurugiroa bezain eremu desberdinetan. Bitarteko horiek, izaera finantzarioko beste batzuekin, hala nola Inbertsioen Europar Bankuarekin batera, lehentasunezko helburu hauen arabera artikulatzen dira:

- 1 Helburua: gutxien garaturiko erregioetan garapena eta egitura-doiketa sustatu.
- 2 Helburua: industri krisiak larriki erasandako erregioak edo erregioguneak birmoldatu.
- 3 Helburua: iraupen luzeko langabeziari eraso eta gazteak lanbidean sarrarazten lagundu, baita lan-merkatutik kanpora gelditzeko arriskua duten pertsonak ere.
- 4 Helburua: industri eraldakuntza eta ekoizpen-sistemen bilakaerara langileei moldatzen lagundu.

*Europar Elkargoaren Egitura-Fondoak ekonomi eta gizarte-garapeneko gaietan dauden lehentasunezko helburuetatik abiatuz artikulatzen dira. Gero eta eginkizun garrantzizkoagoa izango dute.*

*Europar Elkargoak  
egintza-  
aukera zabala du  
bere hiritarren bizi-  
maila hobetzen  
laguntzeko.*

- 5a Helburua: Nekazal egituren moldaera lasterrarazi Nekazal Politika Komunitarioaren erreformamarkoaren baitan eta arrantzuaren modernizazio eta berregituratzeari lagundu.
- 5b Helburua: gune ruralen garapen eta egitura-  
doiketari lagundu.

**Photographs removed due  
to copyright restrictions.**

**Nabari** daitekeenez, 1, 2 eta 5b helburuak izaera bereziki erregionala dute, aldiz, 3, 4 eta 5a helburuek Elkargoaren eremu osoarekin dute zerikusia.

**Gainera**, izaera orokorrarekin baina erregio behartsuenei arreta berezia eskainiz, Europar Elkargoak sektore-izaerako ekimen-multzo bat eta toki eta erregioko laguntza-sare bat dauzka bere eskura.

**Egintza** horien osagarri. Elkargoaren Hitzarmenak egitarau bereziak ezartzeko ahalbidea ireki zuen, Espainiak bezala, garapen-maila txikiagoa dutenetan. Helburu horrekin sortu zen Kohesio-Fondoa, zeina egongo den 1993-1994 aldirako 15.150 milioi ecutako baliabidez horniturik guztira, eta Nazio-Produktu Gordina biztanleko % 90ean europar batezbestekoaren azpitik daukaten lau herrialdeen artean banatuko dira. Hau da, Grezia, Portugal, Irlanda eta Espainiaren artean. Diruz lagungarriak diren egitasmoak (izaera ez ez-ordezgarrizko) egintza berritan ardaztuko dira ingurugiro-gaietan eta interes amankomuneko oinagituratan garraio, komunikabide eta energia-eremuetan (sare transeuoparretan).

**Gainera**, erregio europarren beharrizanei baldintza hoberenetan laguntzeko ahalegin horretan, Egitura-Fondoak % 38,5ean gehituko dira 1999 arte, 1 Helburuari dagozkion konpromezuetarako baliabide eskuragarrien hainbatekoa aregotuz, lehentasunezkoztat jotzen baita, harik eta guztiaren % 70 hartu arte.

**Elkargoaren** eskuhartze zuzena ere errebortxatu egingo da erregio batek baino gehiagok burutuko dituzten ekimenen artean. Azken egintza horiek baliabide guztien % 5 eta %10aren artekoa hartuko dute eta mugazgaindiko, naziozgaindiko eta erregioarteko lankidetzak eta erregio ultraperiferikoei laguntzea izango dute helburu nagusi. Berorien etorkizuneko ihardun-lerroak honako eremu eta bitartekotan ardaztuko dira:

*Garapen-maila txikiagoa duten herrialde eta erregioek lehentasuneko arreta eskatzen dute Europar Elkargoaren aldetik.*

- Mugazgaindiko sareak (INTERREG, REGEN)
- Garapen rurala (LEADER)

*Espainiak, Egitura-  
Fondo eta kohesio-  
tresna berrien bitartez,  
aldeko saldoa  
edukitzen segiko du  
Europar  
Elkargoarekiko bere  
harreman  
finantzarioetan.*

- Erregio ultraperiferikoen integrazioa (REGIS)
- Enplegu-sustapena eta giza baliabideen garapena (NOW, HORIZON, EUROFORM).
- Industri aldakuntzen kudeaketa (RESIDER, RETEX, KONVER, PRISMA, TELEMATIQUE, STRIDE).

**Egitura-Fondo**en ezarpenak bere funtzionamendua orientatzen jarraituko du kontzentrazio, programazio, asoziazio eta gehigarritasun printzipio oinarritzkoetatik,

**Photographs removed due  
to copyright restrictions.**

koordinazio, erabaki-hartze, kudeaketa eta kontrol-prozedurak hobetzen diren bitartean. Prozedura eta egintza-gida horiek Europar Elkargoak buruturiko egintzetarako subsidiarotasun-printzipioaren arabera arautu beharko dira, bere Estatu kideen instantzia nazional, erregional eta tokiko desberdinen laguntzarekin. 3B artikulua gogorarazten duenez: europar instituzioak Estatu kideek behar den besteko eran hasitako egintzen helburuak lortu ezin dituzten neurrian bakarrik arituko dira. Eta, horrela, hobeki lor daitezkeenean, dimentsioarengatik edo elkargoaren ikuspegitik begiratuta egintzak dituen ondorioengatik.

Ihardun-lerro orokor horiek espainiar ekonomiarentzat garrantzi apartekoa duten egintza-panorama bat eratzen dute. Horrela, izaera orokorrarekin, Europar Elkargoko egitura-egintzen multzoan esku hartzea gehitu egingo da 1999an helburu horietara zuzenduriko baliabide guztien % 24raino, gaur egun % 21 baizik ez delarik. Baliabide-multzo horrek era esanguratsuan lagunduko dio Aldeko finantza-saldoari eusten Espainiak Europar Elkargoarekiko izango dituen aurrekontu-harremanetan.

1993an Estatu onuradun bakoitzaren egitura-egintzen oinarritzko elementu eta lehentasunezko helburuak estaltzen zituzten Elkarteko Laguntza-Marko desberdinen iraupen-epea amaitzean, beharrezko gertatu da Egitura-Fondoaren zeregina berrikustea detektatu diren beharrizan berrietara egokitzeko. Horrela, joan den urtean zehar, egitura-egintzen izaera arauemaileko marko erregulatzailerak ezartzen dituzten Erregelamendu berriak onartu dira eta Estatu kideen artean aurrekontu-esleipen esanguratsuenen banaketa adierazgarria ezartzera jo da.

Etorkizuneko ihardun-lerroen berrikusketak Fondo desberdinen ezarpen-eremuen hedapena ekarri du, gune onuradun berrien hautespena eta bitarteko horien koordinazio- eta eraginkortasun-maila gehitzera zuzenduriko programazio-irizpideen sarrarazpena.

*Espainiar erregioen parterik handienak Europar Elkargoak laguntza-egintzak nola gehituko dituen ikusiko dute. Subsidiarotasun printzipioari dagokionez, europar instituzioek gero eta adostasun handiagoarekin jokatuko dute hiritarrengandik hurbilen dauden erabakiguneekiko.*

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

*Europar Elkargoaren egintzek erregio-ekonomiak dinamizatzen lagundu nahi dute, kapital fisiko eta gizakizkoa ahalik eta hobekien baliatzen ahaleginduz.*

**B**aliabide finantzarioen banaketa, zeinaren zuzkidura 1 Helburura bereziki zuzentzen den kohesioak laguntzen dien lau herrialdetan, banda edo urkulu-sistema batean oinarritzen da. Espainiari dagokio hainbateko handiena: 36.500 eta 38.500 mila milioi ecu bitartekoa 1993-1994 aldirako. Europar biztanleriaren % 26' 6ri dagokion helburu horren barruan, 10 Autonomi Elkarte espainiar daude (Andaluzia, Asturias, Kanariak, Kantabria, Gaztela eta Leon. Gaztela-La Mantxa, Valentziar Elkarte, Extremadura, Galizia eta Murtzia), Zeuta eta Melillako hiriez gainera. Baliabide horiei ekimen Europar Elkargoak bere iharduera-egitarauen bitartez zuzenean kudeatzen dituen komunitarioaren zuzkidurak gehitu beharko litzaizkieke.

**1989-93 denboraldian** Espainiarantz bideratutako Egitura-Fondoan baliabideak 1. Helburuko laguntza guztien % 27a hartu dute, espainiar biztanleriaren % 58 estaliz. Bitarteko finantzario horiei (9. 779 milioi ecu) beste iharduera-egitarau batzuetako zenbatekoa (823 milioi ecu) gehitu behar zaie (RECHAR, ENVIREG, STRIDE, REGIS, PRISMA, TELEMATIQUE, INTERREG, LEADER, NOW, EUROFORM, HORIZON eta RETEX).

**Espainiako Erregio-Garapenerako Plana, 1994-1999 denboraldirakoa, 1993ko urrian** Europar Batzordean aurkeztua 93.000 milioi ecutarainokoa da eta Egitura-Fondoetatik eskaturiko baliabideak 26. 3.000 milioi ecutara jasotzen ditu, guztiaren % 28, 28.

**Egintza horiei 2 eta 5b Helburuak** betetzea bermatzera zuzenduriko baliabideak gehitu behar zaizkie, izan ere erregio-mailan duten intzidentzia oso esanguratsua baita. Horrela, 2 Helburuaren barruko iharduerak zazpi Autonomi Elkartetako hamaika probintziari ekarri dizkiete onurak (Aragoi, Kantabria, Katalunia, Madril, Nafarroa, Errioxa eta Euskal Herria), 1.361 milioi ecutako zenbatekoarekin 1989-1993 denboraldian. Hurrengo urteetarako aurrikusiriko baliabideak (Baleareak barne eta Kantabria kanpo direla 1 Helburuko erregioen parte izatera pasatzean) 1.130 milioi ecu baino gehiagokoak dira (Helburu horretara 1994 eta 1996 bitartean zuzenduriko guztiaren % 16,2). Azkenik, 5b Helburuko lurralde-egintzak zortzi Autonomi Elkartetan (Aragoi, Baleareak, Kantabria, Katalunia, Madril, Nafarroa, Errioxa eta Euskal Herria) ia 288 milioi ecutako laguntzak izan dira eta 664 milioi ecutako zenbatekoa espero da datozen urteetan. Gainera, egintza bereziek (STAR eta VALOREN eta, etorkizunean, INTERREG, LEADER, RECHAR, ENVIREG eta RETEX) baliabidea gehiago bermatzen lagunduko dute.

**Egitura-Fondoan eta Kohesio-Fondoaren orientabide** berriek garapen ekonomiko eta sozialaren maila homogenoagoa lortzen lagundu nahi dute. Egitura-egintzen aurrekontu-zuzkidura eta bere banaketa koherentea gertatzen da horrela europar aurrekontuari

*Europar Parlamentuak eta Erregioen Komiteak funtsezko garrantzia duen egiteko bat burutu behar dute europar integrazioaren eta erregioguneen finkapenaren mesedetan.*

esleituriko zeregina eta laguntzen Estatu hartzaileetan aurkezten dire arazoan handierarekin. Guztiarekin ere, egintza horien ez da dimentsio finantzarioan bakarrik funtsatzen, baizik eta inbertsioak berriro jaurti eta ekonomi iharduera erregional eta nazionala indarberritzean batez ere, espainiar ekonomiaren kapital fisikoa - oinegiturak batez ere- eta bere giza kapitala -lanbide-heziketa-areagotzearen bitartez.

**B**aina Europar Elkargoko erregioen artean dauden berdinezak murriztera zuzenduriko baliabideak gehitzea funtsezkoa izanik ere, ez zen aski datorren mendeari begira Europaren eraikuntzan urratutako aldi berriari arrakastaz ekiteko. Era berean hobetze nabarmen bat behar zen erabakiak hartze-prozesuan ere gobernu-maila guztietan, are gehiago Europar Elkargoko eta garapen-gaietan laguntzak hartzen dituzten hiritarrendandik hurbilen aurkitzen diren beste haien arteko harreman-marko berri batek ezaugarrituriko denboraldi batean. Europar Elkargoari dagokionez, subsidiarioritasun printzipioa behar bezala ezartzeko ahalegin jarraitua beharko da orain arte lorturiko esperientziek eskaintzen dituzten irakatsiak ahalik eta gehien baliarazteko. Kotsiderazio hori baliozko da bai izaera orokorreko alderdiei dagokienean (defizit demokratikoaren murrizketa eta Europar Parlamentuaren atribuzio berriak), eta bai erregioguneekin berezikiago zerikusia duten beste horietan ere (Europar Elkargoko Hitzarmenean aurrikusiriko Erregio-Komitearen erakuntza).


**I**ldo horretatik, 1994an hautaturiko Europar Parlamentuak funtsezko garrantzia duen eginkizuna burutu beharko du Europar Elkargoaren garapenean. Bulkada eta ordezkapen-eginkizuna da, baina estimulu eta gidaritzakoa ere badena europar integrazio-prozesuan, baita prozesu horretan tarteko diren hiritarren interesen defentsakoa ere.

**E**uropar, bere bidea urratzen ari den aldi berrirako nobedade gisa, Erregio-Komiteak Elkargoko gainerako instituzioei laguntzeko zereginak hasita dauzka bere eskueren esparru berezian: europar erregioguneen sendarpena. Europa eta bere erregioen finkapena.



**H**elburu horretara zuzendurko dira datozen urteetan Erregio-Komiteko 189 kide, zeinetarik 21 bat Espainiaren ordezkari izango diren (1 Autonomi Elkarteko eta 4 tokiko instantzia desberdinen izenean). Hala eta guztiz ere, bere zereginak ustiapen ona lortzeko beharrezkoa da administrazio guztietatik (tokiko korporazioak, autonomi elkarteak eta erdiko administrazioak) etengabe lanean jarraitzea gaur eguneko Europar Elkargoak dituen barne-diferentziak murriztearen alde.

**Photographs removed due  
to copyright restrictions.**



# EUSKAL HERRIAREN ALDEKO EUROPAR ELKARGOAREN EGINTZAK

*Euskal Herria  
Europar Elkargoaren  
Egitura-Fondoan  
laguntzarekin  
burututako egitarau  
desberdinez baliatu da.*

**N**ahiz eta Euskal Herria, batezbesteko bere garapen-mailarengatik, ez izan Eurpar Elkargoko ihardueren multzoan lehentasunezko arreta eskatzen duen erregioa, egitura-egintza desberdinen zuzeneko onuradun izan da, batez ere dauden arazo ekonomiko eta sozialei kontra egitekoetan. Horrela, adibidez, 1989-1993 denboraldian, Europar Elkargoko Egitura-Fondoek

384, 33 milioi ecu zuzendu dituzte Autonomi Elkartera 2 Helburuarengatik (Espainiari esleituriko guztiaren % 28,2) eta 9 milioi ecu 5b Helburuarengatik (guztiaren % 3,4).

Euskal Herriaren berezitasun ekonomikoek aukera eman diote 2, 3, 4 eta 5b Helburuetara zuzenduriko Europar Elkargoko laguntzetan neurri handi batean esku hartzen, Egitura-Fondo desberdinen bitartez. Halaber, beste europar ekimenetatiko baliabideen erregio hartzaile ere izan da. Baliabide-multzo hori baliteke areagotzea datozen urteetan Europar Elkargoko egintza berrien bitartez.

## EGITURA-FONDOAK ETA GARAPEN-ESTRATEGIAK

Euskal garapen-ereduak 60. urteetan eta 70. urteen hasieran hartu zituen bere ezaugarriak produkzioaren hazkuntza indartsua, aberastasun eta enplegu-sorkuntzari esker, eta horrek inmigrazio-maila garrantzitsua eragin zuen eta industriguneen inguruan biztanleria nabarmen biltzea.

70. urteetatik aurrera, eredu horrek agerian jarri ditu oinarrian zituen zenbait desoreka: espezializazio handia industria oinarrizko eta eraldatzailean, zerbitzu- sektorearen eta oinegituren garapen eskasa, teknologi eta energi menepekotasun nabarmena eta ingurugiroarekiko erlazio desegokia. 80. urteen hamarkadan zehar, eta Europako beste erregio batzuetan gertatu denaren antzera, euskal ekonomiako ia sektore sendo guztiak krisiak (metal-industriak, ontzigintza, siderurgia) erasanda gelditu dira.

**1989-1993** denboraldirako Euskal Herrirako Ihardun-Egitarauean sarturiko egintza-multzo bat finkatu zen, Laguntza-Marko

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

Komunitarioan aurrikusiaren arabera eta aldez aurretik hasitako iharduerekin. Ondorioz, Europar Elkargoak 135 milioi ecu baino zerbait gehiagorekin lagundu du, eta horrek Egitarauerako izendaturiko kostuaren % 37,4 esan nahi du. Gehigarri gisa, eta denboraldi berean, Egitura-Fondoek beste 72 milioi ecu zuzendu zituzten Euskal Herrira, guztira 207,42 milioi ecu direlarik Europar Elkargoaren egitura-laguntza gisa.

**H**asitako egintza nagusienak lau ihardun-ardatzen inguruan bildu dira. Horietako bakoitzak neurri desberdinak sartu ditu eta berorien artean honako hauek dira azpimarratzekoak:

1. **Ekoizpen-ihardueren** sortze eta garatzea, garapen endogenoa, hobekuntza lehiakorra, industri oinegiturazko hobekuntza edo zerbitzu-sektore eta energi anizkuntzari emandako laguntzaren bitartez.
2. **Ingurugiroa** babestu eta hobetzea, erabiltzeari utzitako gunea berreskuratuz, baliabide naturalen

*Datozen urteetan, egitura- eta kohesio-egintzetara zuzenduriko baliabide berriek ere lagunduko dute Euskal Herriak dituen arazo berezietako batzuk konpontzen.*

kudeaketa, ingurune naturala sustatuz eta kutsaduraren kontra borroka eginez.

3. **Ikerketa eta garapena**, eta prestakuntzari laguntzea, Teknologi eta Ikerketa-Zentroetan burututako lanari esker, baita Euskal Herriko enpresetan beretan ere.

4. **Komunikazio-sareak** egokitzea, garraibide desberdinetan, berorien oinegoturretan eta telekomunikazio-sistemetan sartutako hobekuntzei esker.

**Egintza** horietako askok eragin positiboa dute Euskal Herriko enpresa-ihardueran, kasu batzuetan sektore- edo toki-mailan lekuturiko ekimenen ondorioz, baina beste batzuetan irismen orokorreko erreformak egitearen ondorioz, zeinaren onura gizarte eta ekoizpen-sistema osora hedatzen baita.

**1994-96** denboraldirako diseinaturiko **Egitarau** berriak 2.062.000 biztanlerengan (2 Helburuko espainiar biztanleriaren % 25,9). Batzordean arestian proposaturiko baliabide ekonomikoak 351 milioi ecutakoak dira datozen urteetarako, Espainiari dagokion guztiaren % 31,1 esan nahi duelarik.

Europar Gizarte-Fondoak kontratazioa sustatzen eta **gazte eta nagusiak prestatzen erregioan** buruturiko egintzek euskal biztanleriako multzo esanguratsu bati eman diote zuzeneko onura (66 mila pertsonari baino gehiagori 1992an bakarrik). Laguntza ekonomikoen multzo osoa ia 8.000.000 milioi pezetatakoa izan da 1992an.

*Aplikaturiko garapen-estrategiek ere jaso dute europar Egitura-Fondoen berrespena. Bere neurri nagusienak ekoizpen-iharduerari lagundu, ingurugiroa babestu, ikerketari bultzatzea eta komunikabide-sareak hobetzeko izan dira.*

2 Helburuko Laguntza-Marko Komunitarioan finantzaturiko egintzez gainera, Euskal Herriak Erdiko Administrazio eta Autonomikotik jasotako laguntzen onura izan du 3 eta 4 Helburuetarako 4.696 milioi pezeta baino gehiagoko kopuru batekin 1992an eta, neurri txikiagoan, 5b Helbururako. Oro har, bai tokiko eta erregioko instantziak, bai naziokoak eta Europar Elkargoak dituen beste berezi batzuek beren interesa agertu dute dagoen lankidetzaren errebortzatzeko, beren eskuera eta ahalbideen arabera, Euskal Herriaren garapenari laguntzeko.

## EUOPAR ELKARGOAREN BESTE EGINTZA BATZUK EUSKAL HERRIAN

---

**A**ditzera eman denez, europar erregioetako Elkargoaren iharduerak ez dira bere Estatu kideek sustaturiko egintzak finantzatze hutsera

**Photographs removed due  
to copyright restrictions.**

mugatzen. Horrela, Euskal Herriak esku hartu du eta oraindik ere esku hartzen ari da europar ekimen desberdinetan, eta inolako asmo agortzailerik gabe, berorien arteko esanguratsuenak aipatuko ditugu.

Europar Elkargoak babesturiko sektore-egitarau nagusien artean **Ikatz eta Altzairuaren Sektoreari** emandako laguntza gailentzen da, 2.000 milioi pezetatako maielgu batekin Zamudioko Teknologi Parkean teknologia aurreratuko multzo berri baten epe luzerako lehen finantzakidetzeta-faserako.

*Datozen urteetan, Europar Elkargoak era aktiboagoan laguntzeko asmoa dauka Euskal Herriko hiritarren bizi-maila hobetzeak eskatzen dituen premia finantzarioei dagokienez.*

Halaber, erregioak zuzeneko laguntzak jaso zituen siderurgiarako 1.702.188 ecutako balioarekin, 401.116 Madrilekin, 1.643.379 Galizia eta Andaluziarekin elkarbanatzeaz gainera, eta 649. 664 Valentzia eta Andaluziarekin.

**RESIDER** eta **REVANAL** egitarauak altzairu- eta ontzīgintza-sektoreen birmoldaketaako neurri desberdinak hartzeko erraztasunak eman zituzten, baita ingurugiroari arreta handiagoa eta errepide eta trenbidezko garraioa hobetzeko ere. Beste strategi

egitismo batzuen artean Bilboko metroa, bere portua modernotzea, gas naturala banatzea, Donostiako urak tratatu eta eroatearen hobekuntza edo Bernedon enpresa-gune bat sortzearekin zerikusia dutenak aipa daitezke.

**Energi gaietan ALTERNER eta THERMIE** egitarauak ekimen desberdinak ezartzeko erraztasunak eman zituzten. Berorien artean Donostiako Pan—Terre aipagarri da, isolamendu akustiko eta termikoko panelak ekoizten dituelak material birziklatuak erabiliz, International Electronics, S. A., voltaia altuko abiatze biguineko motoreek energia aurrezten dutelako, eta Celulosa de Levante, S. A., energia aurreztu eta kutsadura gutxitu duelako zuraz bestelako materialezko zuntz luzea ekoizteko planta batean.

**Nekazal alorrean.** Europar Elkargoak 10 milioi ecu eman zituen, 1989 eta 1993 bitartean, lurlagintza alternatiboranzko anizkuntzarako 2.500 hektarea erregariatzearena bezalako finantzaketa-ihardueretarako, eta Valderreyko parkea babestu eta sustatzeko.

Halaber, antzeko kopuru bat bideratu zen Gasteizen elikagaiak ekoiztu eta merkaturatzeko baldintzak hobetzeko. Gainera, era zuzenean, Europar Elkargoak 4.000 bat nekazariri lagundu zien gune bereziki zail edo menditsutan beren iraupena errazten.

Ikerketa eta garapen - esparruan, 12.566.416 ecutako balioko 80 bat ikerketa-kontratuk jarri zituzten harremanean Euskal Herriko enpresa eta ikerketa - zentro desberdinak, 300 europar kide baino gehiagokoak, batez ere Alemania, Frantzia eta Erresuma batukoak. Europar Elkargoaren laguntza teknologiari buruzko informazioko ESPRIT egitarauaren bitartez ere bideratu zen, 37 antolamenduri 20 milioi ecu zuzenduz 58 egitasmo difrentetarako.

Azkenik, hezkuntza eta prestakuntza-alorrean Europar Elkargoaren egintzak COMETT egitarauetatik hasi eta FORCE edo PETRA egitasmoetaraino hedatu dira, ERASMUS edo TEMPUS egitarauetatik pasatuz. Azken horietan, adibidez, 600 euskal ikasle baino gehiagok egin zituzten beren ikasketak denboraldi batez

*Europar Elkargoak ekimen desberdinak sustatu ditu ikerketa, hezkuntza, baserri-mundua edo garraioa bezain alor desberdinetan.*

**Photographs removed due to copyright restrictions.**

*Jakina, industri, energi  
eta oinigitura-eremuko  
egintzek laguntza  
garrantzitsua hartu  
dute azken urteotan  
eta lehentasuna izaten  
segiko dute  
etorkizunean ere.*

kanpoan, eta bitartean beste europar nazioetako antzeko ikasle-kopuru batek beren ikasketak Euskal Herrian egin zituen.

**K**asu horietan ondorio mugatuagoa duten ekimenak dira, baina aparteko eragimenekoak elkartrukeetara eta erregio eta europar hiritarren arteko aurrerapidera irekitako gunek bat taxutzeko.





## EUROPAR INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIO- ZENTROAK

Europar Komunitateak informazio eta dokumentazio-zentrozko sare bat sortu du espainiar lurraldean, hiritar guztiek informazio komunitariorako irispidea izan dezaten.

Sare hori beren espezializazio eta kokagune geografikoari dagokionez halako elkarrosagarritasun bat duten eginkizun diferenteetarako zentroz osaturik dago.

***Euroliburutegietan*** Europar Komunitateko oinarri-dokumentazioa kontsulta daiteke.

Unibertsitatearen mundura bereziki zuzendurik daude **Europar Dokumentazio-Zentroak** (EDZ) eta berorien estatutua europar integrazioa aztertu edo ikertzen den Unibertsitateei ematen zaie. EDZek E. K.ko argitalpenen zerbitzu automatiko bat jasotzen dute eta datubase komunitarioetarako irispidea dute.

PYMEentzako egintza-egitaraua aitortzen du enpresa-lankidetzak funtsezko osagaia dela enpresa-politika komunitarioan. Batzordeak enpresa-lankidetzarako bi europar sare jarri ditu enpresen eskura:

- **B. C. Net** (Business Cooperation Network) deituek enpresei beste enpresa batzuk aurkitzen laguntzen diete erregioartean eta eta naziozgaindi lan egin ahal izateko.
- **Enpresa-Lankidetzako Zentroak** (BRE edo Bureau de Rapprochement des Entreprises), lankidetzak eskaintzetarako irispide librea errazten diete nazioarte-mailan aukera-banaketa segurtatzeko.

**Euroleihatilek** PYMEei informazioa eskaintzen diete politika, arazo, araudi edo egitasmo komunitarioen edozein alderdiri buruz.

E. K.ko **Enpresa- eta Berrikuntza-Zentroak** (CEEI) Industri garapenerako ahalmena duten tokiko ekonomiak birsortzea dute helburu guneko enpresa-sektorea sendotzera baliabideak zuzenduz.

## **ARABA**

### **Euroliburutegia**

#### **Gasteizko Liburutegi Publiko Probintziala**

Paseo de la Florida, 9  
01071 VITORIA-GASTEIZ  
Telefonoa: (945) 13 44 05  
Faxa: (945) 13 93 04

### **Euroleihatila**

#### **Euskal Herriko Euroleihatila**

##### **Arabako Bulegoa**

Landazuri, 15 - behe  
01008 VITORIA-GASTEIZ  
Telefonoa (945) 14 68 16  
Faxa: (945) 14 59 53

### **B. C. NET**

#### **Sagazde**

Foruak, 15 - 3º esk.  
01004 VITORIA-GASTEIZ  
Telefonoa: (945) 14 69 00  
Faxa: (945) 14 31 56

## **GIPUZKOA**

### **Europar Dokumentazio-Zentroa**

#### **Europar Azterketa Zentroa Fundazioa**

Ramon Maria de Lili pasealekua, 6 - 5º  
20002 DONOSTIA  
Postakutxa zkia. 49  
20080 DONOSTIA  
Telefonoa: (943) 29 18 77/67  
Faxa: (943) 29 16 63

## **Euroleihatila eta B. C. NET**

### **Euskal Herriko Leihatila Fundazioa**

Tomas Gros, 3- behe  
20001 DONOSTIA  
Telefonoa: (943) 27 22 88  
Faxa: (943) 27 16 57

### **B. C. NET eta BRE**

#### **Gipuzkoako Merkatal Ganbara**

Ramon Maria de Lili pasealekua, 6  
20002 DONOSTIA  
Telefonoa: (943) 27 21 00  
Faxa: (943) 29 31 05

## **BIZKAIA**

### **Europar Dokumentazio-Zentroak**

#### **Euskal Herriko Unibertsitatea Ekonomi eta Enpresa Zientzien Fakultatea**

Agirre Lehendakaria, 83  
48015 BILBO  
Telefonoa: (94) 447 35 62  
Faxa: (94) 447 35 66

#### **Deustuko Unibertsitatea EDZ eta Europar Estudioen Institutua**

Unibertsitateen etorbidea, z/g  
(1 postakutxa)  
48080 BILBO  
Telefonoa: (94) 445 31 00/50 hed. 2316  
Faxa: (94) 445 24 54

### **Euroliburutegia**

#### **Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegia**

Astarloa, 10  
48008 BILBO  
Telefonoa: (94) 420 77 02  
Faxa: (94) 415 51 84

### **Euroleihatila, B. C. NET eta BRE**

#### **Bilboko Merkatal, Industri eta Nabigazio-Ganbara Ofiziala**

Errekalde zumardia, 50  
48008 BILBO  
Telefonoa: (94) 410 46 64  
Faxa: (94) 443 41 45

### **B. C. NET**

#### **Bizkaiko Foru Aldundia**

Orueta Gotzaina, 6  
48009 BILBO  
Telefonoa: (94) 420 73 00  
Fax: (94) 420 80 87

### **AVIC**

Mazarredo zumardia, 43 - behea  
48009 BILBO  
Telefonoa: (94) 424 66 55  
Faxa: (94) 423 34 65

### **Industri Sustapen eta Birmoldaketarako Elkartea S. A.**

Kale Nagusia, 35 - 3  
48009 BILBO  
Telefonoa: (94) 415 82 88  
Faxa: (94) 416 96 23

### **B. C. NET eta BRE**

#### **SOFAD**

Gardoki, 9 - 1º  
48008 BILBO  
Telefonoa: (94) 415 83 11  
Faxa: (94) 415 89 05

### **Enpresa Berrikuntzarako Zentrua**

#### **CEEI-BEAZ**

Errekalde zumardia, 18 - 6º A  
48009 BILBO  
Telefonoa: (94) 423 92 27  
Faxa: (94) 423 10 13

## EGITURA POLITIKA AMANAKOMUNA

### ERRÉGIO GARAPENERAKO EUROPAR FONDOA (FEDER)

#### **Ekonomia eta Hazienda Ministraritza**

Plangintzako Zuzendaritza Nagusia  
FEDERen Gestio eta Administrazio  
Azpizuzendaritza Orokorra  
Paseo de la Castellana, 162 - 19 solairua  
28046 MADRIL  
Telefonoa: (91) 583 52 23/24  
Faxa: (91) 583 52 72

#### **Eusko Jaurlaritza**

Kupo eta Finantza Ekarpenen  
Zuzendaritza  
Ekonomi eta Ogasun Saila  
Wellington Dukea, 2  
01011 VITORIA-GASTEIZ  
Telefonoa: (945) 18 95 99/ 18 95 57  
Faxa: (945) 18 96 20

### NEKAZAL ORIENTABIDE ETA BERMERAKO FONDOA (FEOGA)

#### BERME SAILA

#### **Koordinazio Antolakuntza:**

#### **Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministraritza**

Ekoizpen eta Prezioen Ordenazio eta  
Araupen-Fondoa  
Nekazaritzakoak (FORPPA)  
Adiministrazio Orokorra  
José Abascal, 4  
28003 MADRIL  
Telefonoa: (91) 347 67 02  
Faxa: (91) 594 34 88  
Telexa: 45506

#### **Arrantza eta Itsas Hazkuntzatiko Ekoizkin Merkatuaren Erregulapen Fondo eta Antolamendua (FROM)**

Estébanez Calderón, 3 - 8º solairua  
28020 MADRIL  
Telefonoa: (91) 572 02 01/2/3  
Faxa: (91) 571 45 62  
Telexa: 43005/48652

#### ORIENTABIDE SAILA.

#### **Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministraritza**

#### **Nekazal Egituren Idazkaritza Nagusia**

Nekazal Erreforma eta Garapenerako  
Institutu Nazionala (IRYDA)  
Paseo de la Castellana, 112  
28071 MADRIL  
Telefonoa: (91) 347 15 00  
Faxa: (91) 411 37 70/564 52 65  
Telexa: 48979

#### **Eusko Jaurlaritza**

Sailburuaren Kabinetearen  
Zuzendaritza  
Nekazaritza eta Arrantza Saila  
Wellington Dukea, 2  
01011 VITORIA- GASTEIZ  
Telefonoa: (945) 18 96 83/85  
Faxa: (945) 18 97 01/ 02

## **EUROPAR GIZARTE FONDOA (FSE)**

### **Lan eta Gizarte Segurantzako Ministraritz**

Enpleguko Zuzendaritza Nagusia  
Europar Gizarte Fondoaren Unitate  
Administratzailea

Pio Baroja, 6  
28009 MADRIL  
Telefonoa: (91) 574 69 03  
Faxa: (91) 574 16 01

### **Eusko Jaurlaritz**

Azterlanen eta Araubide Juridikoaren  
Zuzendaritza


Lan eta Gizarte Segurantz

Wellington Dukea, 2  
01011 VITORIA - GASTEIZ  
Telefonoa; (945) 18 93 51/52  
Faxa: (945) 18 94 50

**Photographs removed due  
to copyright restrictions.**



- BANCO BILBAO VIZCAYA: "Informe Económico 1992", Bilbao, 1993.
- COMISION DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS: "Vademécum de la Reforma de los Fondos Estructurales Comunitarios", Luxemburgo, OPOCE, 1989.
- COMISION DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS: "Fondos Estructurales Comunitarios 1994-1999", Luxemburgo, OPOCE, 1993..
- COMISION DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS: "Cuarto informe anual de la Comisión sobre la aplicación de la reforma de los Fondos Estructurales, 1992", COM(93) 530 azkena, Brusela, 1993 (eta Egitura-Fondoei eta 1990-1993 ekimen komunitarioei buruzko dokumentu osagarriak).
- EUROSTAT: "Estadísticas básicas de la Comunidad", 30º arg., Luxemburgo, OPOCE, 1993.
- EUROSTAT: "Portrait des Régions", Tome 3, Luxemburgo, OPOCE, 1993
- INSTITUTO NACIONAL DE ESTADISTICA: "Encuesta de Población Activa", Madril, 1993 eta 1994.
- INSTITUTO NACIONAL DE ESTADISTICA: "Censo de Población 1991", Madril, 1993.
- MINISTERIO PARA LAS ADMINISTRACIONES PUBLICAS: "Presupuestos consolidados de las Administraciones Territoriales por Provincias y Comunidades Autónomas", Madril. 1993.
- MINISTERIO DE ECONOMIA Y HACIENDA: "PLAN DE DESARROLLO REGIONAL DE ESPAÑA 1989-93", Madril, 1989.
- MINISTERIO DE ECONOMIA Y HACIENDA: "Política Regional en 1991". Madril, 1992.
- MINISTERIO DE ECONOMIA Y HACIENDA: "La Planificación Regional y sus instrumentos", Madril, 1993.
- MINISTERIO DE ECONOMIA Y HACIENDA: "Presupuestos Generales del Estado para 1994. Informe Económico-Financiero", Madril, 1993.
- MINISTERIO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL: "Anuario de Estadísticas Laborales". Madril, 1993.
- PAPELES DE ECONOMIA ESPAÑOLA: "Comunidades Autónomas. Situación económica actual", nº 55, Fundación FIES, Madril, 1993.
- TRIBUNAL DE CUENTAS DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS: "Informe Anual relativo al ejercicio 1991, acompañado de respuestas de las instituciones", D.O.C.E. C 330 de 15. 12. 1992, Luxemburgo, OPOCE.



## SIGLAK

ALTENER	Energia alternatiboei buruzko egitaraua.
BP	Gep Barne-Produktu Gordina erosmen parekotasunetan. herrialde bakoitzak duen erosmeneko makromagnitute ponderatua.
COMETT	Unibertsitatea eta enpresaren arteko lankidetzaz- egitaraua teknologien alorreko prestakuntza-gaia.
ENVIREG	Batzordearen erregio-neurrien egitaraua ingurugiro- gaia.
ERASMUS	Ikasle unibertsitarioren egintza-egitaraua mugikortasun-gaia.
ESPRIT	Ikerketa eta garapenerako estrategi egitaraua informazio-teknologiatan.
EUROFORM	Enplegu-koalifikazio berri, -gaitasun berri eta -aukera berriei buruzko egintzak prestatu, burutu, ebaluatu eta hedatzean datzan ekimena.
EUROSTAT	Europar Komunitateen Estatistika-Bulegoa.
EUROTECNET	Lanbide-heziketako sektorean berrikuntza bultzatzera zuzenduriko egintza-egitaraua.
FEDER	Erregio-Garapenerako Europar Fondoak.
FEEep	Famili Errenta Eskuragarria erosmen-parekotasunetan. Erregio bakoitzeko prezioek zuzenduriko makromagnitutea. Beste adierazgailu batzuek baino fideltasun handiagoz ematen du erregio bateko hiritarren bizi-maila erreala.
FEOGA	Nekazal Orientabide eta Bermerako Europar Fondoak.
FORCE	Lanbide heziketa jarraituaren garapenerako egintza- egitaraua.
FSE	Europar Gizarte-Fondoak
HORIZON	Ezinduek eta zenbait talde desfaboratu lanbidean sartzeko ekimena.
INTERREG	Erregio mugakideen artean loturak hobetzera zuzenduriko ekimena.
I+D	Ikerketa eta Teknologia Garapena.
KONVER	Militarguneen birmoldaketa errazteko egitaraua.
LEADER	Ekonomia ruralaren garapenera laguntzeko ekimena.
LINGUA	Europar Elkargoan hizkuntza atzerritarren ezaguera sustatzeko egitaraua.



MAC	Laguntza-Marko Komunitarioak. Europar Elkargo eta agintari nazional, erregional eta tokikoen egintzen koordinazio-tresnak ezarritako lehentasun- helburuetan.
NOW	Emakumeen aukera-berdintasunaren aldeko ekimena enplegu eta lanbide-heziketan.
PETRA	Gazteak nagusieta lanbide-bizitzarako formatu eta prestatzeko egitaraua.
PRISMA	Gutxien garaturiko erregioetako oinegiturak hobetu eta hedatzeko, enpresei zerbitzuak eta PYMEei laguntza teknikoa ematera zuzenduriko ekimena.
PYME	Enpresa Ertain eta Txikia (EET).
RECHAR	Ikatz-arroen birmoldaketa ekonomikorako egitaraua.
REGEN	Energi sareen garapenerako egitaraua.
REGIS	Erregio isolatuen integrazioa errazteko egitaraua.
RESIDER	Siderurgi industriako sektorearen berregituraketarako egitaraua.
RETEX	Erregio ehungileei laguntzeko egitaraua.
STAR	Erregio-garapenerako telekomunikaziotako egintza- egitarau berezia.
STRIDE	I+D-n erregio-ahalmena errebortxatzeko egitaraua.
TELEMATIQUE	Telekomunikaziotako zerbitzu aurreratuak erabiltzeko egitaraua.
TEMPUS	Ikasketa unibertsitarioei dagokienez Europan zehar mugitzeko egitaraua.
THERMIE	Energiaren gestio eraginkorrerako europar teknologia.
VALOREN	Energia endogenoari buruzko egitaraua.